

**BAT EGINGO DUT****\* Gure dekalogo**

Komeni da ikasleekin adostea tratu txarren aurka gure gelan zer egingo dugun. Horrela, esplizitatuko ditugu egoera horietan haiengandik espero ditugun erantzunak, horrelakorik ez gertatzeko.

Errazago **lortuko** dugu ikasleen **konpromisoa** haien portaera gidatuko duen dekalogo bat **adosten** badugu haiekin. Jarduera honetan dekalogo hori osatzea eta beti kontuan hartzea proposatzen dugu.

Jarduera hau egin baino lehen, komenigarria da  **Kezkategia** jarduera egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

**HELBURUA**

- Tratu txarren aurrean taldean irizpide komunak adostea.



**GARAPENA**

Sarrera moduan, baliabideetan eskaintzen den bideo bat ikusiko dute talde handian, elkarrekin arazoei aurre egiteko taldeak daukan indarrari buruzkoa.

Ikasleak 4-5 pertsonako taldeetan banatuko dira. Irakasleak taldeen erdiari (talde berdeak) "Tratu txarren kontrako jarrerak" eranskineko A fitxa emango dio eta beste erdiari (talde gorriak) "Tratu txarrak indartzen dituzten jarrerak" eranskineko B fitxa.

Talde bakoitzak 10-15 minutu izango ditu fitxan falta den zatia osatzeko. Taulan idatzita agertzen ez diren beste jarrerak ere gehitu ditzakete.

Bukatzen dutenean bateratze-lana egingo dute. Talde berdeak zutabe gorrian jarritakoa azalduko dute eta talde gorriek, berriz, zutabe berdean jarritakoa. Errepikatzen ez diren jarrerak beste taula batean jasoko dituzte, talde handiaren taula izango den horretan. Kartoi mehean egitea proposatzen dugu, horman jartzeko. Adibide bat, ondoren.

<b>Tratu txarren aurrean, zer egin?</b>	
 <b>Tratu txarren kontrako jokabideak</b>	 <b>Tratu txarrak indartzen dituzten jokabideak</b>
Besteen irudirik ez birbidaltzea baimenik gabe.	Irudi iraingarriak birbidaltzea. Bideo iraingarriak partekatzea.

Bideo iraingarriei ez erantzutea, zabalkuntza gelditzeko.	
Zurrumurrurik ez zabaltzea. Zurrumurruak gelditzea. Gezurra dena salatzea.	Zurrumurruak zabaltzea. Zurrumurruak asmatzea. Kontakizunak apaintzea, beste bat umiliatzeko.
Tratu txarren aurrean, laguntza eskatzea...	Tratu txarren aurrean, parte hartzea, laguntzarik ez eskatzea, paso egitea...
Bestearen lekuan jartzea. Elkartasuna adieraztea.	Nork berea bakarrik ikustea.
Inor barregarri ez uztea. Norbaiti iseka egiten badiote, parte ez hartzea, isilaraztea, iseka-egileei gaizki begiratzea...	Besteei iseka egitea, parte hartzea.
Norbait beste bat gaizki tratatzen ari denean, begietara zorrotz begiratzea.	Norbait beste bat gaizki tratatzen ari denean, itsuarena egitea.
Tratu txarren aurrean, horiek gaitzestea, oihukatzea...	Beste aldera begiratzea, paso egitea.
Ezizen iraingarriak ez erabiltzea.	Ezizen iraingarriak jartzea edo erabiltzea.
Tratu txarren aurrean, biktimari elkartasuna adieraztea.	Tratu txarretan parte hartzea txantxetan ari garelakoan.
Inor ez baztertzea, parte hartzera gonbidatzea.	Gustukoa ez dugun hori baztertzea, kontuan ez izatea.

Hortik abiatuta, **eta** zutabe berdean zentratuta, **tratu txarren kontrako jarrerarik onenak** aukeratzeko bozketa egingo dute ikasleek: bakoitzak hiru jarrera aukeratu dituzte. Boto gehien lortzen duten 10 jarrerak izango dira **tratu txarren aurkako praktika onen dekalogoak**. Horiek jasotzeko, *Dekalogoak* fitxa erabil daitezke (edo kartoi mehean antzeko bat egin), gelan jartzeko. Dekalogo horretan praktika onak jasotzeaz gain, irudi bat txertatzen badute, are hobeto.

**Eta harremanak onak ez direnean?** blokea bukatzeko, irakasleak gogoratuko du egindako jardueren helburuak, hau da, jazarpena zer den jakitea eta horri aurre egiteko estrategiak garatzea.

Arbelean, denon artean esaldi hau osatuko dute, eta baliabideetan dagoen “Bat egingo dugu” eranskinean denon sinadura jasoko da.



## ETA HARREMANAK ONAK EZ DIRENEAN?

Gela honetako ikasleak .....

alde gaude, jazarpenari aurre egiteko **Gure dekalogo**a egin dugu eta

..... egingo dugu.

### DENBORA

Saio bat

### BALIABIDEAK

- Bideoa: *El arbol indio*  
<https://www.youtube.com/watch?v=6x7Sz42-wy4>
- Eranskina: "Tratu txarren aurrean, zer egin?" A eta B fitxak
- Eranskina: "Taldearen dekalogo"
- Eranskina: "Bat egingo dugu"
- Kartoi mehea, aukeran.